

KUP Taldeak Abesbatzen Europako Lehiaketa Nagusian parte hartuko du

Azaroaren 5ean izango da hitzordua, Tolosako Leidor aretoan. Bertan izango dira, era berean, 2010ean Europa mailako Lehiaketa garrantzitsuenetan garaile izan ziren gainerako taldeak.

KUP Taldeak Abesbatzen Europako Lehiaketa Nagusian parte hartuko du, datorren azaroaren 5ean. Tolosako Leidor aretoan ospatuko da lehiaketa, eta bertan izango dituzte arerio Alemania, Suedia, Hungaria eta Italiatik etorritako punta-puntako abesbatzak, 2010ean Europa mailako lehiaketetan irabazle suertatu zirenak, hain zuzen ere.

Frantziako Tours hiriko ordezkariak dira KUP Taldekoak. Izan ere, 2010ean beraiek izan ziren lehiaketa hartako irabazle absolutuak. Parte hartu zuten kategoria guztietan (derrigorrezko programa, programa libre eta errenazimenduko programa) garaipena eskuratu zuten eta, ondorioz, baita aurten Abesbatzen Europako Sariketan parte hartzeko txartela ere. Hori horrela, Europako zirkuitua osatzen duten gainerako lehiaketetako ordezkariak izango dituzte arerio taula gainean, hau da, Varna (Bulgaria), Arezzo (Italia), Tolosa (Euskal Herria) eta Debrecen-eko (Hungaria) lehiaketetan 1. saria lortu duten taldeak.

KUP Taldea 2003an sortu zen, gazte-talde baten ekimenez. Gabriel Baltes da taldearen zuzendaria: abesbatzen munduan punta-puntakoa eta Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Ikasketen Zentroan abesbatzen zuzendaritza-irakaslea. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 30 lagunek osatzen dute KUP Taldea, guztiak ere abesbatzen munduan esperientzia handikoak.

Sorreratik bertatik, zailtasun eta konplexutasun tekniko handia duten maila goreneko obrak interpretatzea izan da KUP Taldearen helburua eta, zentzu horretan, aipatu beharra dago Gabriel Baltes maisuak eskaintzen duen bermea.

Ibilbide labur bezain bizi honetan, Estatuko nahiz atzerriko ziklo eta jaialdietan parte hartu dute, bai eta nazioarteko zenbait lehiaketetan ere. Horren emaitza dira, halaber, orain arte jasotako sariak: folklore saileko 3. saria 2008ko Tolosako lehiaketan, 1. saria Maribor-en (Eslovenian) 2009an, eta 1.go hiru sari Tours-en (Frantzia) 2010ean.

20 urte igaro dira euskal talde bat lehen aldiz maila honetako sariketa batera iritsi zenetik. Bigarren aldia da, beraz, bertako batek Abesbatzen Europako Sariketa Nagusian jardungo duena. Oraingoan, gainera, etxean

bertan. Orain arteko bidean taldeak landu dituen garai eta estilo desberdinetako musika jendaurrean ez ezik, epaimahaiaren aurrean erakusteko aukera ezin hobe.